

EUSKAL-ASTEA AURTEN

Euskerazaleak Alkarteak urtero egiten dau, aspaldiko urteetan, euskal Astea. Aurtten be egingo dogu.

Ez da erreza izaten izlariak eta gaiak aukeratzea, baiña urte guztietan aurkitzen doguz baten batzuk, naizta urte guztietan izan bigarrenenez edo irugarrenenez lan au artzen dogunak.

Aste au eratzean beti izaten da laguntza Jaurketarako erakunderen batzutatik.

Bost egun izaten dira, iru ordu-lauren inguru berbaldia eta ordulauren- edo alkar-izketa. Bitarteetan bertsoak edo olerkiren bat abestuten dau Paulin gure olerkariak.

Berbaldietarako aretoa Eskolapioak emoten dauskue biotz onez eta gure eskerrik onena agertzen dautsegu.

Aurtten azillaren 15'ean asi eta 19'an amaituko dogu. Egunero arratsaldeko 8'retan.

IZLARIAK ETA GAIK

Asieran artu genduzan bideak zeatz-zeatz betetzea gaitxa izaten da. Olako arloetan bidea egiñez aldakuntzak be egin bear izaten dira. Guk bizkaieraz dana egitea nai genduan, baiña izlariak aurkitzea erreza izaten ez dalako, gipuzkoar batzuk be artzen doguz eta gogoz etorten jakuz. Eskerrak eurai.

Gaia euskerea bera izatea zan gure ametsa, baiña arlo ori zabaldu egin bear izan da eta euskal gai guztiak sartu. Orrelan entzungarriagoa izaten da astea.

EUSKALDUNOK ETA KOLON

Au da aurtten lenengo egunerako aukeratu dogun gaia. Igaz bete ziran 400 urte Kolon Ameriketara joan zala eta ori dalata liburuska irakurgarri batzuk atera ebazan DEIA egunkariak, euskaldunak noraiño kideko izan ziran agertzeko asmoaz.

Arazoa oso jakingarria da, gure aberri txiki onek zela-ko eragiña izan eban ekintza aretan argi ta garbi ikusteko. Neu izango naz izlari.

RH ODOLEAN ETA EUSKALDUNAK

Gai au aitatzen danean, laster esaten dabe batzuk endakeria dala, baiña or dagoz jakingarriak eta jakin egin

bear dira. Ez gure endea onena dala esateko, olakoa dala gure odola agertzeko baiño.

Gai oneri buruz liburu ederra idatzi eban Jakakortaxarena'tar Txomin'ek, Arjentina'n egindako billaketa zeatz baten barria emonez. Ango azterketa kontuan dala geroa-go lan ederra egin eban Goti osagille euskaldunak. Ikusi Bilbao'ko Antropoloji asteen liburu biak.

Izlaria Arrinda'tar Anes izango da. Ondo ezagutzen dau gaia eta argi agertzeko era bereziak daukaz.

ARANA'TAR SABIN

Guztiok ondo eta sakon jakin bear geunke nor eta zelakoa izan zan Sabin, eta zelako barrizkuntza ekarri eban Euskalerrira, ondoren ugariak eta onak izan dauzan barrizkuntza, bai euskeraren arloan eta bai errigintzaren bi-dean.

Oñatibia'tar Manu etorriko jaku eguastenean gai au argitzeko.

GERNIKA'KO BATZARRAK ETA BIZKAI'KO JAUNA

Zelako goraberrak sortu diran Bizkaira erregea datorrela-ta. Zergaitik ikasi ez arazo orren oiñarria zertan da-goan? Bizkai'ko Jauna, izen ori artu eben Gaztelako erregeak, zer dan eta jauntza ori zelako baldintzakaz igaro zan erregeen eskuetara jakin bear dogu.

Euskalerriaren kondaira-arloan oso jakituna dan Arrien'dar Gregorio'k egingo dau berba arlo onetan. Bero-nek idatzi dauan euskal-kondairari buruzko esku-liburua oso irakurgarria da.

EUSKALDUNEN ABIZENAK

Jakintza zabala dauan Zubikarai'tar Augustin ekarriko dogu gai au azaltzeko.

Guztiok arduratu bear geunke gure abizenak zer esan nai daben eta nondik etorriak diran jakiteko. Onek toki-izenakaz dauka zer-ikusia, baiña gai zabalago au beste urte baten azalduko dogu.

Irakurle guztioi egiten dautzuegu dei aste onetara.

OLAZAR'tar Martin'ek